

hondo-hondotik

Urko Aierbe

(EHUko kidea)

Hizkuntz eskubideen eta ofizialtasunaren alde kalera

G oizean jaiki eta gosalduta bezain laster kalera irten nintzen eguneroko lanari eustera. Etxe azpiko kioskoan EUSKALDUNON EGUNKARIA (euskara hutsez dagoen bakarra) erosi eta autobusa hartu nuen klasera abiatzeko. Autobus gidariari honela esan nion: «Txartel bidaia bat» eta horrek ulertu ez eta gazteleraz hitz egiteko esan zidan. Behin eskolan, teknologiko klasea nuen, guztia erdaraz. Izan ere, gure eskolan antza denez euskaldunak nahikoak ez ginenez, ikasketa guztiak erdaraz egitera behartu gintuzten. Klaseak amaitu eta autobusera berriro. Gidaria beste bat zen, baina honek ere euskaraz jakin ez! Arratsaldean, sendagilearengana joan behar nuen azterketa bat egitera eta niri dagokidanak ere ez zekien euskaraz. Ordezko bat eskatu nion, baina ez zegoenez, izorratu eta erdaraz jaso behar izan nuen zerbitzu hori. Jada nahiko nazkatu, etxera joatea erabaki nuen. Buzoia zabaldu eta hiru gauza nituen jasotzeko: lehena, lagun baten gutuna; bigarrena, erdara hutsez zegoen merkatal zentro baten iragarki liburuxka; eta azkena, lan bulegoko ikastaroen berri ematen zuen gutuna. Hau ere erdara hutsez. «Hau ez da posible» pentsatu nuen. Etxean sartu eta besaulkian eseri nintzen. Telebista piztu eta euskarazko telebista bakarre-

an, futbola! Zer ikusiko nuen ba nik erdaraz ez bazen. Egun osoan euskaraz bizi nahi eta ezina azalean bizitu nuen, nire herrian bigarren mailako herritarra banintz bezalaxe.

Euskal Herriko edozein euskaldun gerta dakioken egoera irudikatzen saiatu gara sarrera honetan. Gure herriko edozein lurralde, herri edo eremutan bizita ere, honelakoan aurrean topatu behar baitugu behin eta berriz euskaldunok, hizkuntz eskubideen urraketa sistematiko baten aurrean, alegia. Izan ere, Euskal Herriko berezko hizkuntza bakarra euskara bada ere, egun bigarren mailan dago bere lurralde osoan. Aipatu hizkuntz eskubideen bortxaketa administrazio guztietan eta esparru desberdinetan ematen da: udaletan, osasun zerbitzuetan, justizian, lan ogasun bulegoetan, ikastetxe eta unibertsitateetan, komunikabideetan... Jarraituko al dugu zerrenda amaigabearekin? Egunkari honek eskaintzen digun tartea laburra litzateke.

Egun bizi dugun egoera honen jatorri nagusia Euskal Herria zatitzen duen egitura juridikoa dugu. Euskararen lurraldea zatiturik, bi estaturen legeak dira inposatu eta indarrez ezartzen zaizkigunak, konstituzioak alegia. Lege horien eskutik helduta doaz marko juridikoaren arabera egiturak eta legeak

(«Vascuencearen Legea», «Euskararen Legea» eta «...»). Guztiekin hizkuntz eskubideak ez dira bermatzen eta euskara ez da inon ofiziala, Euskal Herrian indarrean diren legediak, espainiar eta frantziarren hizkuntz politiken menpeko baitira. Eta hau ez da inoren asmakizuna, errealitate objektibo bat baizik. Horra hor, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak duela aste batzuk plazaraturiko azterketa eta egiazko datuak. Azterketa horrek, Euskal Herrian kokaturik diren administrazio guztiek euskaldunon hizkuntz eskubideak bortxatzen dituztela ondorioztatu du.

Euskararen etorkizuna ez dago ziurtaturik. Beste milaka hizkuntzekin batera, euskarak, amildegiaren paretetan bizirik dirau nola edo hala, azpian duen hilobiaren mehatxu etengabearekin. Honen erantzunkizun zuzena euskararen etsaiek dute, argi ikusi baitute euskara dela herri honen nortasunaren adierazlerik nagusia eta euskararen normalizazio prozesua gelditzeko helburuarekin kolpe bat bestearen atzetik bideratzen ari dira. Baina, bestalde, egoerari ausardiaz aurre egiten ez bazaio, gure hizkuntzaren desagerpena begi aurrean izango dugu. Ausardiaz ari garenean, behingoz jarrera eta ekimen irmoak bideratzea esan nahi du. Egungo markoari eskutik helduta ibili beha-

rean, honi eskua askatu eta euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatzeko beharrezkoa zaigun egitura bakarrari heldu behar zaio. Urteetan aniztasuna eta berdintasuna elebitasunarekin ezkontzen direla esaten dihardutenei, behingoz gezur hori albo batera utzi edo bestela herritarren eskubideak zergatik ez dituzten betetzen esan beharko diote gizarteari. Gaur jada ez da aitzakiarik!

Izan ere, euskararen etorkizunak izen abizenak dauzka: *lurralde bat*, *legedi bat*, *ofizialtasuna*. Euskararen lurraldea Euskal Herria izanik, hizkuntz eskubideak berdin arautu behar dira eta hau normalizazio prozesua babestuko duen lege bakar batez soilik gauza dezakegu. Euskararentzat marko juridikoa eraikitzea zain ez egoteko moduko erronka da, hil ala bizikoa esango genuke eta horretan urrats txiki baina haundiak eman behar ditugu. Euskararen ofizialtasuna ez baita inposaketa (askok dioten bezala), euskal herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko oinarritzko gutxiengo demokratikoa baizik.

Honela bada, euskararen berreskurapenean egunero egiten ari den lanari eustea dagokigu. Gaur arte euskara bizirik irautea lortu badugu, urteetako lan, militantzia eta borrokari esker izan da eta gauden garai hauetan, ezinbestekoa da euskararen alde eginez egun borrokatzea. Honela, martxoaren 22 eta 23an *hizkuntz eskubideak borrokatuz, ofizialtasuna eskuratu* lemapean mobilizazio egunak burutuko dira Euskal Herrian. Lerro hauetatik euskaltzale eta orohar euskararen alde zaudeten herritar guztiei ekimen hauetan parte hartzeko deialdi zuzena egin nahi dizuegu. Euskararen etorkizuna guk geuk gure indarrez ziurtatuko dugu.

Israelen lotsabideak

(Aurreko orrialdetik dator)

kokalekuak mantendu eta zabaldu nahi ditu... Netanyahu gobernuburu ohi eskuindarraren figura kezagarria azaldu da, eta, Shlomo Filber alde duela, Judeako, Samariako eta Gazako Kokalekuen Kontseiluko burua izandakoa alegia, Sharonenak baino jarrera gogorra aldezten ari da. Defentsa-politikari ematen zaion garrantzi izugarri handia dela-eta, barne politikaren zuzendaritza eraginkortasunik gabekoa da, alde batera uzten baititu lan plan ugari, eta ez baitie heltzen gizarte eta bizikidetasun arloetan dauden arazo guztiz ugari, zein ekonomia krisi gero eta handiagoak larriagotu egiten baititu.

Alde horretatik, Sharonen gobernuren balantzea etsigarria da: ekonomia-aren garapena itzelezkoa izan arren (BPGa 82.000 milioi dolarretik gorakoa da, eta biztanleko errenta 15.000 dolarrekoa; 1948an, kopuru horiek, hurrenez hurren, 1.000 milioi eta 1.500 dolar ziren), sionismoaren jatorrizko asmo komunitarioetako bat —«adin eta gizarte maila guztientzat lanean bilatzea

zoriontasuna»— desagertu egin da globalizazioaren eta norbanakoa aberastearen mesedetan. Palestinarrekiko gatazkaren ondorioek mesfidantza eragin dute atzerriko enpresen artean, eta haien inbertsioak %77 jaitsi dira 2000ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Turismo sektoreak 1.600 milioi dolar galdu ditu, eta aurrekontu militar eta polizia areagotu egin da programa sozialen kaltean. Hazkunde indizea %6tik -%0,5era jaitsi da, eta gizarte berdintasunak gero eta handiagoak dira: hamar urtean, pobrezia atalasearen azpitik (hau da, hilabetean 250 euro baino gutxiago dituztela) bizi diren pertsonen kopurua %18raino jaitsi da (guztira sei milioi biztanle dira).

Israel aukeraketa larri bat egin beharrean dago: Estatu nazional etniko eta erlijioso, joera autoritariokoa, edo demokratikoa. Baina kontserbadurismoa areagotzen ari da herri osoan. Hona bi adibide: Ariz Bitxara diputatu arabiarrari parlamentari inmutateak kendu diote, eta erruztatua izateko arriskuan dago; bestalde, ahaleginak egiten ari dira Auzitegi Gorenaren jarduna

Ganberako alderdi politikoen apeten mende jartzeko.

Judaismoa, erlijio pertsonala izan ondoren, hastapenetara itzultzen ari da: erlijio nazionala, zeinek Estatu menderatu nahi baitu, eta ahalik eta gehien erabaki gizarte zatitu zein nortasun krisi larri batean murgilduaren norabidea. Ikuspegi erlijioso nagusia etengabe borrokatzen ari da bere baitan (ortodoxoak eta erreformistak, zein gehiengo baitira Estatu Batuetako eta Europako judaismoan), hala nola joera modernizazioa sionismo laikoarekin. Alderdi erlijiosoak hainbat joeratan zatituta daude, eta rabien zein etnien arteko lehia bakoitzeko joera bat dago, baina guztiek ere judaismo mesianikoa eta nazionalismoa lotzen dituzte «herria, fedea eta Israelgo Estatu» trilogiaren errebindikazioan, Jainkoak herri aukeratuari emandako aginduaren aplikazio gisa: lur promestua edukitzea, hortaz, Zisjordaniako eta Gazako lurraldeak, eta, tesi estremistenen arabera, haietako biztanle arabiarrek kanporatzea. Inoiz baino indar handiagoa baitute, beren hauteskunde emaitzak funtsezkoak dira etorkizuneko Gobernuak osatzeko, eta mendekotasun horregatik askotan lortzen dute beren iritziak nagusiaraztea: ezkontza eta dibortzioe-

tan irizpena ematen duten auzitegi erlijiosoak, larunbateko atsedena eta erakunde zein zerbitzu publikoetan elikadura arauak errespetatzeko betebeharrak, eskola propioak, estatuen diru laguntzak. Erlijiorik ortodoxoenera itzultzeak zorikidetasun erlijiosoan batasuna izatearen nostalgia islatzen du, hala nola *Eretz* Israelen sorrera ideologikoki justifikatzeko beharra, eta baieztapen hori behin eta berrir egin da duela mende batetik, egitate judua era bakkarrean sendotzeko dibertsitatearen aurrean, horretarako beste herri eta iritzi batzuk baztertu behar badira ere.

Egoerak horrela irautea oposizio moral eta politikoki garrantzitsurik ez izatearen ondorio da; izan ere, ez dago eztabaida publiko eraginkorrik, ez eta kontrol parlamentario serioa egingo duen politikari berririk ere. Egoera ez okertzeko, Israelgo herritarrek eta Estatuak ireki egin beharko dute, eta politika moldea, mentalitatea, jarrerak aldatu beharko dituzte, eta dibertsitatea zein eskubideen berdintasuna onartu, barne tentsio arriskutsuak gainditu nahi izatera. Eta horretarako, halaber, ezinbestekoa izango da palestinarrek behin betiko bake zuzena lortzea.